LARRUAZALPEKO ERRESERBORIO BENOSOA, ANESTESIA LOKALAREKIN
(Ebakuntza osterako zaintza eta gomendioak)

- Ekin zure ohiko tratamenduari eman dizkizuten argibideei jarraituz.
- Datozen egunetan hartu tenperatura goizean eta arratsaldean.
- Normala da molestiaren bat izatea. Adierazi dizuten analgesikoa hartu dezakezu.
- Ez hartu gauza pisutsurik, eta ez egin ebakuntza egin dizuten aldea tenkatzea ekarriko duen mugimendurik.
- Babestu alde hori kuxin moduko zerbaitekin segurtasun-uhala erabili behar baduzu, bizkar-zorro bat eramateko edo bularretakoaren tirantearen igurtzitik babesteko.
- Ebakuntza egin eta bigarren egunetik aurrera, dutxa hartu edo zauri ingurua garbitu ahal izango duzu. Dutxa hartu eta zauria ondo lehortu eta gero, aukeran duzu: estali edo agerian utzi.

LARRIALDIETARA JOATEKO ARRAZOIAK:

- Odoletan ari bazara, ugari.
- Min bizia edo iraunkorra baduzu eta lasaigarriekin arintzen ez bada.
- Ingurunea handituta baduzu.
- 38 ºC-ko sukarra edo altuagoa baduzu.